

Indultua 'Marey kasuko'
kondenatuentzat

Euskal Herrian lotsagarritzat jo da, eta PSOEek erabateko indultua behar zela dio

PPren eta PSOÈren arteko akordio politiko baten ondorio dela esan du IUk

Mareyren kasuko kondenatuak indultatu izana justifikatu egin zuten PPK eta CiUk, IUk, eta Euskal Herriko ahots gehienek, aldiz, lotsagarritzat jo zuten. HBko Mahai Nazionalaren egoera gogoratuz, Justiziak guztientzat ez duela tratatu bera izaten nabarmendu zuten. PSOEko ordezkariak, bestalde, indultuak erabatekoa izan behar zuela esan zuten.

Erredakzioa / Donostia

ESPAINIAKO Gobernuak Jose Barrionuevo, Rafael Vera eta gairontzeko kondenatuak indultatu zituela espero zen arren, atzo ere hainbat erreakzio izan ziren erabaki horren inguruan.

Juan Alberto Belloch ♦ PSOEko diputatua

«Errespetua bai, baina eskuzabaltasunik ez»

Bellochen iritziz, «Gobernuak errespetua bai, baina ez du eskuzabaltasunik izan». Izan ere, notizia ona iritzi zion arren, sozialistek diote indultu osoa eman behar zaiela. Bellochek, gainera, nabarmendu zuen Gobernuak «behartuta» zegoela erabaki hori hartzera, «Gorenaren erabakia errespetatzea baino ez baitzen». X

Alberto Fernandez Diaz ♦ Kataluniako PPKo presidentea

«Bake bidean beste katebegi bat da»

Fernandez Diazen ustez positiboa da Espainiako Gobernuak indultuak eman izana. «Barrionuevo eta Veraren indultuak katebegi bat gehiago dira bakea sendotu eta terrorismoarekin bukatzeko etorkizunerako estrategian», esan zuen Fernandez Diazek. Esan zuenez, «zauri zaharrak ixten uztea da». X

Inmakulada Boneta ♦ EAko senadorea

«Ez da neurri bakar bat erabiltzen»

Bonetak Marey kasuko kondenatuei eman zaien tratatu bera eskatu zuen Mahai Nazionalarentzat. «Ez da baremo bakar batekin neurtzen», esan zuen. Izan ere, Mahai Nazionalaren delituak bahiketa batek baino larritasun gutxiago duela adierazi zuen. Hala, indultu hauek ematean erabilitako argudio berak erabili zituen Mahai Nazionalaren alde «hauen kasuan ere ez baitago arriskurik alde egin edo delitu bera egiteko». X



Jose Barrionuevo eta Rafael Vera, Auzitegi Gorenean.

EFE

HB ♦

«Lotsagarria eta onartezina da»

HBren ustez Ministroen Kontseiluak hartu erabakia «lotsagarria eta onartezina da, argi uzten baitu Espainiako Estatuak ezberdin neurtzen dituela delitu batzuk eta besteak». Hauek ere gogorarazi zuten alderdiko buruzagitzak guztia dagoela espetxean, «bake proposamen bat jasotzen zuten bideo bat zabaltzeagatik». X

Senideak ♦

«Batzuei askatasuna eta besteei zigorra»

Senideen iritziz oso deigarria da Barrionuevo eta Vera aske utzi

bitartean «117 euskal preso politikok barruan jarraitzen dutela ez dagokien zigorra betetzen». Zigorren 3/4 beteta dituzten presoak, alegia. «Vera eta Barrionuevok, berriz, askatasuna lortzen dute, eskubide dohai eta berebiziko gizakiak bailiren». X

Javier Madrazo ♦ IU

«Aberrazio demokratikoa izan da»

Madrazoren iritziz indultu partziala «aberrazio demokratikoa» eta Konstituzio Espainiarrearen «bortxaketa nabarmena» izan da, 14. artikulua «justiziaren aurrean herritar guztiak berdinez direla finkatzen baitu». Haren esanetan, PPK eta PSOEek burdinezko pak-

tua egin dute GAL kasua faltsuan ixteko». X

LAB ♦

«Irain krudela izan da»

Ustekabeko ez deritzoten arren, esparru politiko eta judizialan neurtzeko dagoen maila ezberdina agerian geratu dela salatu zuen LABek. «Euskal herritar baten bahiketagatik -hilketengatik ere epaiketaren zain daudela ahaztu barik- zigortuta dauden Vera eta Barrionuevo gaizkileei indultoa ematea irain krudela da, bereziki Estatu terrorismoaren biktimetzat eta haien senitartekoen zatitza», esan zuen. «Argi dago Estatuaren izenean eginiko hilketa, bahiketa, tortura eta antzekoak dohainik irteten direla». X

Amedo: «Zin dagit guztiak itzuliko direla espetxera, poliziak izan ezik»

«ZIN dagit guztiak itzuliko direla espetxera, poliziako funtzionarioak ezik», esan zuen Jose Amedok, indultuen berri jakitean. Esandakoen arabera, argi dago GALi buruz datu gehiago emateko prest dagoela, berak ere espetxera itzuli behar duen arren.

Amedok esan zuenez, ez bazen atzo bertan joan auzitegira izan zen bere «familiak Eguberriak lasai pasatzea» nahi duelako. Baina,

zin egin zuen urtarrilean auzitegira joko duela. «Datorren hilabetean ez banaiz goardia epaitegira joaten eta ez banaiz telebista guztietan irteten, esan nahi du hil egin nautela edo behartu egin nautela», esan zuen.

Amedoren esanetan, gustura dago polizian zituen kide ohiak indultatu dituztelako, «azken batean, aginduak betetzen baino ez baitziren ari». «Baina politikoei dagokionean, gogoratu

nahi dut Dominguezek eta nik duela bost urte eskatu genuela indultua, eta ordutik Eguberri asko egin ditugula espetxean, Vera eta Barrionuevoren aginduak betetzeagatik», gaineratu zuen. «Humilatu egin gaituzte, zantatu, eta, orain, haiek indultatzen dituzte eta gu ez», esan zuen.

Amedok esan zuenez, prest dago dakien guztia kontatzeko. «Egungo egoera justizia, politika eta kazetaritza mundu-

ko traidoreez beteta» dagoela adierazi zuen: «Eta guzti horiek gorri-gorri egingo dira espainiarrek historiaren egia jakiten dutenean».

Berak hitz egin ostean, Garcia Danborenea eta Sancristobalek ere hitz egin beharko dutela ziurtatu zuen. «Eta hau kate bat denez, horiek Barrionuevo eta Vera behartuko dituzte hitz egitera, eta azkenean Gonzalezek ere esan beharko du dakiena», amaitu zuen. X

Jose Luis Urain preso aske geratu da, 92. artikulua aplikatu ondoren

■ Gaixotasun larria izan arren, lehen aldirik fiskalak errekurritu egin zuten

Erredakzioa / Donostia

BILBOKO espetxe zaintzako epaile Ruth Alonsok Jose Luis Urain preso aske uzteko agindua eman zuen atzo. Uraini 92. artikulua aplikatu diote, gaitz larri eta sendaezina duelako. Izan ere, preso debarrak odoljarioak eragin dadiokkeen hipertensio artetrial du.

Preso honen kaleratzea atzeratu egin da fiskalaren jarrera dela medio. izan ere, Urainen abokatuek preso aske uzteko bigarren eskaera bat ere egin behar izan zuten, fiskalak Urain aske uzteko erabakiaren aurka errekurritsoa aurkeztu baitzuten.

Urain martxoan espetxeratu zuten Entzutegi Nazionalak ezarritako sei urteko zigorra betetzeko. Aurretik Guardia Zibilak 1994ean atxilotu eta hiru egunez inkomunikatuta egon zen, eta 200.000 pezeta ordaindu ostean aske geratu zen. X

«Egin kasuko» lau preso espetxetik irten dira, bermea ordaindu ostean

■ Maite Martinez presoari ere 5 milioiko fidantza jarri diote

Agentziak / Madril

BALTASAR GARZON epaileak berme izugarriak jarri arren Egingen eta ENAMen finantza sarearen kontra eginiko polizi operazioan atxilotutako lau presok atzo banketxeetan aurkeztu abalen bidez espetxetik irtetea lortu zuten. Hala, Isidro eta Patxo Murga anaiak Valdemoroko espetxetik afera ziren bakoitzak 75 milioi pezetako bermea aurkeztu ostean. Manu Aranburu, berriz, apur bat berandua go atera zen Soto del Real espetxetik. Azkenik, Bixente Askasibar preso Basauriko espetxetik irten zen 50 milioiko bermea ezarri ostean.

Azkenik, Jose Garziak atzo oraindik espetxean jarraitzen zuten. Garzia Mijangos, ziurrenik gaur irtengo da espetxetik senitartekoei 50 milioi ordaindu eta gero.

Bestetik, Maite Martinez preso aske uzteko bost milioiko fidantza eskatu du Garzon epaileak. Martinez duela bederatzik hilabete dago espetxean, epailearen aurrean aurkeztu eta gero kartzeleratu baitzuten. X